

KONTROL MOZIOA

EURI UREN KANALIZAZIOAREN ONDORIOZ ERAGINDAKO UHOLDEAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2019ko abenduaren 9an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Egun hauetan Marinelen plazako lokalen jabeek eta erabiltzaileek uholdeak jasan dituzte, euri-uren kanalizazioarekin izandako arazoak direla eta.

Delegatuak prentsan egindako adierazpenetan aipatu du Amara Berriko hoditeria zaharkituta dagoela eta berritze prozesu bat behar duela, baina, oraingoz, 120.000 euroko kostua izango duten emergentziazko neurriak erabiliko direla datorren astetik aurrera.

Marinelen plazako estolderiarekin izandako arazoak ez dira kasu bakarra. Izan ere, egun hauetan uholdeak ikusi ditugu hainbat kale edo errepidetan: Gernikako pasealekua, Karlos Santamaria eraikinaren ingurua, Urbieta kalea, Pio XII. plazaren ingurua...

Batzordean delegatua interpelatu dugunean azaldu digu uholdeen arrazoia euriteak izan direla eta Udaltzatzen inbertsio asko egin dituela 2019an eta bide horretan jarraituko duela 2020an hiriko estolderia hobetzeko.

Aste honetan berriro ere eman dira horrelako egoerak hiriko auzoetan eta bizilagunek hainbat arazoren berri eman dute: estolda batzuk hosto lehorrez gainezka daudela eta ezin dutela ura irentsi, putzuak sortzen direla galtzadetan eta oinezkoentzat oso konplikatua dela oinez joatea, etab.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udaltzatzen hertsatuki eskatzen dio Udaltzatzenari euriteen ondorioz hilabete honetan urez gainezka egon diren puntuak detektatu ditzala.

2.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari arazoak egon diren zonaldeetako estolderia garbitu dezala, euri uren kanalizazio egoki bat emateko eta aurrera begira uholdeak prebenitzeko.

Donostian, 2019ko abenduaren 12an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia